

**Gure gogoak
juntatzeko prest.**
Mugimendu Abertzalearen Herri Topaketak.

bagira



Sarrera

Bagira* prozesua antolatzeko proposamena zehaztu aitzin, Mugimendu Abertzalearen ibilbideari eta egun aurkitzen den testuinguruari buruzko hainbat elementu ekarri nahi genituzke.

Mugimendu Abertzaleak bere lehen harria Itsasun jarri zuen kasik duela 60 urte. Lehen etapa honetako fruituak oparoak izan ziren. Gure lurraldean borroka abertzalea sustraitu eta egitura edo sektore ainitzen, baita milaka militanten sorrera permititu zuten. Bakoitzak bere maneran, harriz harri lurralde honen historiaren zati bat eraikitzen parte hartu du.

Momentu berean, **Enbatak enbor komun baten sustraiak landatu zituen, zeinetik Ipar Euskal Herrian Mugimendu Abertzalearen adar ainitz nabarmendu ziren.** Orduz geroztik, Mugimendu Abertzaleak erakunde asko ezagutu ditu Ipar Euskal Herrian: ETA, Euskaldun Gazteria, Jazar, Ezker Berri, Mende Berri, EIBAT, Iparretarrak, Herri Talde, Izan, Laguntza, Herriaren Alde, EHAS, Hordago, ELB, EMA, Euskal Batasuna, Patxa, Hexa, Eusko Alkartasuna, Abertzaleen Batasuna, Oldartzen, Autonomia Eraiki, Piztu, Gazteriak, IEHIE, LAB, Demo, Haika, Batasuna, Segi, MRA Fundazioa, Bizi!, EH Bai, Sortu, Aitzina, Alda...

Adar hauen jatorria galdera bati emaniko erantzun ezberdinetan dago nagusiki: « Nola aitzinarazi borroka abertzalea Euskal Herrian? ». Borroka armatuaren erabilera eta Ipar Euskal Herriko berezko estrategia baten garapena bi desadostasun iturri nagusien artean kokatzen ahal dira. Beste faktore batzuk abertzaleen panorama organizatiboa astindu dute ere. Besteren artean, tokiko aterabide politikoak sortzen permitituko lukeen **Ipar Euskal Herriko instituzio propio baten eskasiak**, hainbat hamarkadetan abertzaleen **hauteskunde emaitza txarrek**, aukera politikoen idekiera edo itxierak, aldaketa sozioekonomiko orokorrek, errepresio politikoak, edota eskema kultural eta ideologiko berriko belaunaldi berrien sartzeak. Urte hauetan tentsioak eta minak izan dira, baina baita ere prozesu politikoaren garapenean **jauzi kualitatiboak eragin dituzten bat egite sekuentziak eta eraikuntza komunak.**

Mugimendu Abertzalearen historiak borrokaturiko eta etenik gabeko aitzinatze baten historia izaten segitzen du; iragandako garaietako aukerak baliatzen jakin duen askatasun egarri bat, gaurko egunetaraino nehoiz baino biziagoa ekarri duena.

Egun, Mugimendu Abertzalea, **emendatzen ari den fronte politiko eta instituzional** batean garatzen da. Baina **erakunde politikoetatik haratago hedatzen da, zabaltasun handi batekin, sektoreetako antolakundeen konstelazio baten barnean**, norberaren eguneroko engaiamenduan gauzatuz: laborantza herrikoian, herri komunikabideetan, euskal preso eta iheslari politikoezko elkartasunean, feminismoan, tokiko ekonomia sozial eraldatzailean, ekologian, energia berriztagarrietan, tokiko monetan, ekintza sozial eta solidarioan, sindikalgintzan, herri-hezkuntzan, euskalgintzan, kulturaren, etxebizitzan...

Mugimendu Abertzaleak **lurraldearen dinamismo militanteari pultsua eta lur emankorra ematen dio besta edota mobilizazio aldarrikatzaile momentu handien inguruan:** AHTaren kontrako borroka, Batera, gatazkaren ondorioen konponbidea, mobilizazio sozialak, Korrika, Alternatiba, EHZ, Herri Urrats, Lurrama...

Nola aitzinarazi borroka abertzalea Euskal Herrian?

Zergaitik?

«Existentzia sentimental» simple batetik abiatuz, borroka abertzaleak kuantitatiboki eta kualitatiboki aitzina egin du inflexio puntu garrantzitsu batean kokatu arte.

Ipar Euskal Herriko eskalan **historiako lehen instituzioa** soilik ez dugu lortu. **Hauteskunde emaitzen aitzinamendu azkarra** ezagutzen ari gara, bereziki herri/elkargo mailako bozetan, eta berrikiago departametaletan eta legegileetan. Erdi zabalik den leiho berri batean gaude, dauden aukerak hein handian eraikitzeko direlarik.

Gainera, **borroka armatuaren bukaera** Ipar zein Hego Euskal Herrian, **ETAren desegitea eta gatazkaren ondorioen konponbidean egin aitzinamenduek** prozesu politikoa ezaugarri berrietan kokatu dute. Azkenik, Mugimendu Abertzalearen geroa belaunaldi aldaketari baldintzatua da. Belaunaldi berriak kuantitatiboki eta kualitatiboki sortzen ikusi behar ditu, aitzinean diren erronken araberako indar militanteen eskala aldaketa bat gauzatzuz. Kanpo faktoreei dagokienez, **aldaketa globalek** eta batez ere Estatu mailakoek, **mehatxu berrien aitzinean jartzen gaituzte, baina baita Euskal Herriaren burujabetzaren beharra eta garrantzia baieztatzen duten aukeren aitzinean ere.**

Testuinguruak bideragarritasun baldintzak zabaltzen ditu, baina borroka abertzalearen aitzinamendua ez dago idatzirik. Bihar ere, Estatu botereekiko konfrontazio sekuentzien eta bere helburuak lortzeko Mugimendu Abertzaleak ezartzen dituen antolaketa baliabideen emaitza izanen da.

Haatik, igoera betean eta aurrekaririk gabeko aukeren aitzinean gauden momentuan, Mugimendu Abertzalea osatzen duten dinamikek, **sakabanatze nabarmen bat** bizitzen dute, **paraleloan lan eginez, ez baitezpada elkar gurutzatuz.**

Mugimendu Abertzaleak gogoeta komunak egiteko espazio eta denborak eskas ditu bultzada berri bat eta azkartze erabakigarriak gauzatzeko. Erronka hauei erantzuteko, Mugimendu Abertzaleak gakoak litzatekeen sekuentzia bat antolatze beharra du: **Mugimendu Abertzalearen Herri Topaketak.**

Erdi zabalik den leiho berri batean gaude, dauden aukerak hein handian eraikitzeko direlarik.

Antolaketa partekatu bat

Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalea, Euskal Herriaren burujabetza bidean, jarduera eta ikuspegi aniztasunarekin, sektore ezberdinetan lanean ari diren eta aldaketa sozial zein politikoak bultzatzeko bokazioa duten ezkertiar, aurrerazale edota herrikoi esparru zabalez eta jendez osatua da.

Horregatik, proiektuaren antolaketa, Mugimenduaren aniztasuna ordezkatzen duen eta, bai generoz, bai belaualdi ikuspegitik orekatua den hamabost bat abertzaleko talde batek du. **Gidaritza Batzordea osatzen duen talde hau erregulariki bildu da joan den urtean Bagira* prozesuaren antolaketa proposamen bat sortzeko helburuarekin.**

Talde horrek, irailean zehar, Mugimenduko berrogei bat antolakunderi zabaldu die proiektuaren asmoa, parte hartzeko gomita beren sustengu humano, logistiko finantziara mutualizatuz. Eragile horien partetik jaso duen sustengu oso zabalak, **Bagira*** prozesuaren abiatzeko arrakasta bermatzen du.

Proiektua publiko ez izan arren, **jada esparru guzietako hirurogei bat laguntzailek** parte hartzen dute lan talde ezberdinetan Mugimendu Abertzalearen Herri Topaketa horiek arrakasta bermatzeko.

Jada esparru guzietako hirurogei bat laguntzailek parte hartzen dute.

Helburuak

Bagira* prozesuaren helburu orokorra, Ipar Euskal Herriko abertzaletasunari Mugimendu izaera berriz ematea da, berrituz, berrindartuz eta beste 60 urte gehiago proiektatzeko oinarriak eskaintzea erronka garaikideak gaingituz. Anbizio hau, ondoko lau azpi-helburuetan deklinatu daiteke:

#01

Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen oinarriak eguneratu.

ZER GIRA?

Itsasuko Agiriaz geroztik izan diren aldaketen neurria hartzea da erronka, oinarri ideologikoak gaurkotuz, egungo egoerari egokituriko hitzetan ezarriz Ipar Euskal Herriko biztanleriara iristeko asmoz eskala aldaketa bat kausitzeko gisan. Ariketak, «gaurko munduan zer da abertzale izatea?» galderari erantzunak eman beharko lizkioke besteak beste.

#02

Epe ertaineko helburu eta etapa partekatuak kokatu.

ZER LORTU NAHI DUGU?

Epe ertainean elkarrekin gaingitu nahi ditugun helburu eta etapa partekatuak identifikatzea da ideia, Mugimenduko osagaien artean, bide orri partekatu baten osatzeko lanaz lagundurik. Helburua ez da estrategia bakarra finkatzea, elkarren arteko lan ardatzak marraztea permitituko duen Mugimendu gisako estrategia partekatu bat eraikitzea baizik.

#03

Mugimendu gisa antolatu eta artikulatu, helburu amankomunekin.

NOLA?

Itsasuko Agiriaz geroztik izan diren aldaketen neurria hartzea da erronka, oinarri ideologikoak gaurkotuz, egungo egoerari egokituriko hitzetan ezarriz Ipar Euskal Herriko biztanleriara iristeko asmoz eskala aldaketa bat kausitzeko gisan. Ariketak, «gaurko munduan zer da abertzale izatea?» galderari erantzunak eman beharko lizkioke besteak beste.

#04

Belaunaldi transmisioa bultzatu eta profil berriei zabaldu.

NORK?

Azkenik, Herri Topaketa horiek Mugimendu Abertzalearen eskala aldaketa bat ekarri beharko lukete bere oinarri militantea zabalduz profil eta belaunaldi berrien engainamenduari esker. Prozesu politikoaren garapenean, jauzi kuantitatibo eta kualitatibo bat emateko, kopuruan animatzaile politiko eta sektorial aski sortzea permititu behar dute, baita indar militantearen konpetentzian eta feminizazioan emendatze bat lortu ere.

Egutegia

Hortarako, Mugimendu Abertzalearen Herri Topaketak, Ipar Euskal Herriko lurralde guzietan iraganen den, metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak nahasiko dituen eta parte hartze pertsonala zein kolektiboa eskatuko duen herri gogoeta eta eztabaida prozesu berritzaile bezala ulertu behar da. Bagira* prozesuak, 2023ko urtarriletik 2024ko apirilera iraunen du, hiru sekuentzia nagusitan eta zombait inflexio punduz osaturik:

2023ko otsaila-martxoa Transmisio historikoa

Abendu erditsuan, komunikazio baten bitartez proiektua publiko egin eta, Transmisio Historikoaren sekuentzian sartuko litzateke. Helburua da prozesuaren berotze ariketa bat egitea gogorat ekarriz borroka abertzaleari esker gaintituak izan diren etapak. Sekuentzia horrek lagunduko du:

- Iraganetik atera beharreko irakaspenak agerrarazten;
- Mugimenduko osagaien ibilbideak partekatzen;
- Bizi dugun momentu historikoa ulertzen;
- Eta ondare historiko hau belaunaldi berriei transmititzen lagunduko luke.

Azken hamarkadan gertatutako aldaketei atentzio berezi bat eskainiko zaie. Mugimenduko eragile kolektiboak, formatu anitzeko ekimen ziklo deszentralizatu baten antolaketan parte hartzera gomitatuko dira (lekukotasunak, idazleen interbentzioak, proiektzioak, erakusketak, bisitak, ate-idekiak, jokoak...).

2023ko apirilaren 8-9 2023ko Aberri Eguna

Sekuentzia, 2023ko Aberri Egunean bukatuko da. Ipar Euskal Herriko lehen Aberri Egunaren 60-garren urtemuga ospatuko duen bi eguneko besta giroko ekimen horrek, Transmisio Historikotik hurrengo sekuentziara pasatzeko inflexio pundua izanen da.

2023ko apirila-uda Diagnostikoa

Diagnostikoa osatzen duen bigarren sekuentziaren helburua, Mugimendu Abertzalearen egoera aztertzea litzateke: zeintzuk dira bere indargune eta ahulguneak? Ariketa horrek kartografia oso baten egitea suposatuko du bai eta galdera horri erantzutea: gaur egun zer da Mugimendu Abertzalea?

Diagnostiko horrek, testuinguruaren azterketa egin beharko du ere, erronka nagusiak identifikatzeko: zein dira aukerak eta mehatxuak? Horretarako, sekuentziak metodologia bikoitza erabiliko du:

- Aberri Egunean hedatuko litzatekeen galdezketak kuantitatibo bat, egoeraz eta heldu diren erronketaz ahalik eta abertzale gehienek iritziak jasotzeko.
 - Hainbat hitzordu kualitatibo solasaldi eztabaida edo tailer forma hartuko luketenak gai zehatz batzuen sakontzeko.
- Diagnostiko horren emaitzak 2023ko sartzean zabalduko dira eta azken sekuentziako oinarri gisa baliatuko dira.

2024ko apirila 2024ko Aberri Eguna

2024ko Aberri Egunak prozesu osoari bukaera emango lioke prozesuaren emaitzak argitaratuz besta giroko momentu jendetsu horren kari.

2023ko iraila 2024ko apirila Ekoizpen Amankomuna

Prozesuaren helburuak beteko litzatekeen dokumentu bat edo batzuk ekoiztea da helburua (idatzia(k) eta ikus-entzunezko deklinazioak); herri parte hartze masiboa eta Mugimenduko eragileen parte hartzea nahasiko litzatekeen metodologia bat baliatuz. Sekuentzia horrek, besteak beste, galdera horiei erantzun beharko die:

- Zer gira? Zer da abertzale izatea gaurko munduan?
- Zer lortu nahi dugu? Epe ertaineko zoin helburu eta etapa partekatzen dugu?
- Nola Mugimendu egin? Nola antolatu eta artikulatu helburuak kausitzeko?

bagira



HARREMANETARAKO

WEB bagira.eus

EMAIL info@bagira.eus

FACEBOOK facebook.com/bagira.eus

TWITTER [@bagira_eus](https://twitter.com/bagira_eus)

INSTAGRAM [@bagira_eus](https://www.instagram.com/bagira_eus)